

EUSKARAREN KALE ERABILERAREN GORAKADA EZ DA ERABATEKOA

Nekane Larrañaga

Soziologoa EHU

Helbide elektronikoa: nekane.larranaga@ehu.es

Euskararen kale neurketaren laugarren saioa egin berri dela, eskuartean ditugu 12 urte hauetan Euskal Herriko kaleetan euskarak izan duen eta gaur egun duen errealtatea aztertzeko datuak. Urteen eboluzioari begiraturaz, esan daiteke ez direla alperrik pasa urteak; datu orokorrei begiraturata itxaropentsuak dira emaitzak, euskara geroz eta gehiago erabiltzen baita. Euskal Herriko erabilera orokorrean %10ekoa izatetik, %14era pasa da. Bereziki EAE'an gertatu da gorakada hau, Nafarroan euskararen erabilera kopuruak mantentzeko joera izan du, Iparraldean, zoritxarrez, aurkako joera izan duen bitartean. Badirudi beraz, garai autonomikoa osatu duen azken hogeita bost urtetako prozesuan, euskararen ezagutzan izan ditugun irabaziek, erabilerara ere izan dutela bere jautzia, EAEn bada ere.

Euskarak errealtate ezberdinak bizi ditu lurralde batean ala bestean, Gipuzkoan biztanleen hirutik batek darabil euskara kalean, Bizkaian entzuten da urrena euskara gehien, hamarretik batek darabil, Nafarroan gutxiagok erabiltzen du %6,6ak, Araban berriz euskarak kalean duen presentzia ez da %5era ere iristen, Iparraldean euskarak bizi duen gizarte errealtatearen pare. Gipuzkoa da, lurralde elebitasuna hurbilen duen lurralde bakarra. Araban berriz, oraindik ere oso urria da euskarak daukan presentzia erreala. Hala ere Arabak, Iparraldearen alderantzizko joera bizi du eta joerak bai direla garrantzitsuak etorkizunera begira. Esaterako, haur eta gazteak izatea euskara gehien darabilten giza taldeak, datu baikorra da etorkizunera begira, hizkuntzaren progresioa erakusten baitigute.

Urteetako joeren datuak zehatzago begiraturata kezka sortzen dute berriz Bizkaiko datuek.

2001. urte arte euskararen erabilerak gorako joera izan bazuen ere, azken bost urtetan prozesu hau eten egin dela dirudi, puntu bat gutxiago baitu 2006.ko erabilerak, eta beherako joera haur eta gazteetan gertatu da gainera.

Euskarak kalean duen erabilpena, hizkuntza honen ezagutzak lurralde bakoitzean duen mailaren adierazle da, hau da, ezagutza altuena duen lurraldeetan erabiltzen da gehien. Baina ez horrena bakarrik, baita euskaldunen trinkotasunarena ere, hainbat ikerketetan jasoa izan den beza-

la, zenbat eta euskaldun gehiago izan gizarte ingurunean, euskara erabiltzeko aukera gehiago.

Ez du ordea honek esplikatzen guztia, euskararen erabileraren gorakada, ez da euskara gehien ezagutzen den zonaldeetan bakarrik eman, euskara gutxiengoak ezagutzen duen guneeetan ere gertatu da igoera V.kale neurketako datuei begiratuz. Gizarte aukerak beharrezkoak dira hizkuntza bat erabili ahal izateko, baina hiztunak hizkuntza horretan hitz egin nahi izatea da beharrezkoa hizkuntza horretan hitz egingo badu. Txillardegiren teoretan oinarrituz egiten diren interpretazioetan adierazten da euskararen ezagutzaren arabera egokitzen zaiona baino altuagoa dela ematen den erabilera, hiztunaren izan nahia, euskaraz bizi nahia edo hainbat teoriak deitzen dieten identitate etnolinguistikoa da gertakizun hau esplikatzen duena. Hizkuntza erabiltzeko nahia, hizkuntza horrekin hiztunak duen jarrerak adierazten digu. Gehiago ikertu beharko genituzke beraz, euskararekiko hiztunek duten jarrerak, nahiak, asmoak, euskararen etorkizuneko joerak antzemateko.

Etorkizuneko gizarteari begira itxaropentsua da, euskararen irabaziak, haur eta gazteengandik etorri izatea; ezagutza mailako azterketetan ikusten zen bezala, kale erabileran ere horrela gertatzen da, adina zenbat eta gazteago, euskara gehiago ezagutzen eta erabiltzen da. Gainera lurralde guztietan gertatzen da progresio hau, bai Autonomi Elkarteetan, baita Nafarroan ere. Nafarroan nahiz eta administrazioaren babesik ez izan, euskararen etorkizuna itxaropentsua da, haur eta gazteek helduek baino gehiago bai darabilte, beraz legezko erabakiek ez dute beti zehazten hizkuntza batekiko hiztunaren jokabidea. Iparraldea da bestelako prozesua bizi duen lurraldea, benetako galzoriaren joera lurralde honetan bizi du euskarak.

Datuek erakusten digute bestalde, hiriburuetan kokatzen direla gaur egun, euskal hiztun gehien kopuruei erreparatuz. Hiriburuetakoko joerak aztertu ezkerro, hainbat gaztetaz ohartzen gera, bata, haurrak direla euskara gehien darabilten giza taldea, baina baita ere, Iruña eta Bilboko kasuek erakusten duten bezala, gero eta gutxiago direla beraien artean euskara darabilten gazteak. Irabaziak beraz, haurrengandik datoz, baina haur horiek gazte bihurtzen direnean ez da ziurra hauek euskara erabiltzeko joerari eutsi izatea. Azken urteetan Donostia eta Gasteizen, gazteen arteko euskara erabilerak gora egin badu ere, haurren arteko kopuruak ez dira mantendu haur hauek gazte izatera iritsi direnean. Beste era batera esanda, gehiago behar luke izan gazteen euskara erabilerak progresioa lineala izan balitz, baina ez da horrela.

Hiriburuetakoko euskararen erabilera joerak zehazkiago aztertuta ikusi dezakegu, lurralde guztietan ematen den gertakizuna: haurrek presente daudenean edo haurrengana zuzendutako elkarrizketetan, euskara gehiago erabiltzeko joera dugu. Nagusien arteko elkarrizketetan gutxiago erabiltzen dugu euskara eta joera hori berori, hau da, euskara gutxia-

Euskarak errealtate ezberdinak bizi ditu lurralde batean ala bestean, Gipuzkoan biztanleen hirutik batek darabil euskara kalean, Bizkaian entzuten da urrena euskara gehien, hamarretik batek darabil, Nafarroan gutxiagok erabiltzen du %6,6ak, Araban berriz euskarak kalean duen presentzia ez da %5era ere iristen, Iparraldean euskarak bizi duen gizarte errealtatearen pare.

go erabiltzearena, errepikatzen da ondoren, haurrak elkarrekin ari direnean, euskararen erabilerak behera eginez. Deigarria da joera hau oso indartsu gertatzen dela Iruña edo Gasteizen, haurren arteko elkarrizketetan euskararen erabilera hutsera etortzen baita hiriburu hauen kasuan.

EUSKARAREN ERABILERA % Udalerria	Neurketa urtea	EUSKARAREN ERABILERA	Haur-Nagusi arteko EUSKARAREN ERABILERA	Haur-Haur arteko EUSKARAREN ERABILERA	Nagusi-Nagusi artekoa haurren presentzian EUSKARAREN ERABILERA
Gasteiz	1997		5,1%		
Gasteiz	2001	4,4%	7,8%	0,3%	1,5%
Gasteiz	2006	5,9%	8,9%	0,8%	3,0%
Donostia	1997		31,5%		
Donostia	2001	29,0%	37,6%	29,0%	14,5%
Donostia	2006	31,6%	38,0%	32,2%	20,0%
Iruña	1997		5,4%		
Iruña	2001	6,2%	8,6%	5,9%	3,4%
Iruña	2006	4,4%	6,9%	0,8%	2,1%
Bilbo	1997		6,1%		
Bilbo	2001	6,9%	11,7%	2,6%	2,1%
Bilbo	2006	7,3%	9,9%	4,3%	4,4%

Gure gizartean, euskara asko estimatutako gaia da, guraso gehienek nahi dute beren seme-alabak euskara ikasi eta euskaraz egin dezaten, baina bestelako giza ereduak antzematen dituzte gaztetasunera heltzen direnean, eguneroko hizkuntza erabilerak bestelakoak direla ohartzen dira, erdara erabiltzeko joera edo ohitura dutela helduek. Eta haurrak, errazago ikasten du egin behar duela esaten zaiona baino, besteek egiten dutena edo bere inguruan ikusten duena. Ikustea ikastea dela baieztatzen da hizkuntzen gizarte errealitatean. ■